

Prest!



BERBETAN: **URKO VALDIVIELSO ZUECO** MENDI KORRIKALARIA

ERREPORTAJEA: **DUELA 50 URTEKO OLENTZERO** BARKUA: **KIROL TALDE BERRI BAT**

190-191-192-193-194-195-



Gure babesleak



KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA
DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA



Babestu Prest!

urtean 25€

Aldizkari hau etxean jaso nahi baduzu bidali zure datuak ondoko helbideetara:

Izen-abizenak
Helbidea
Telefonia
E-posta
Kontu zenbakia (Iban)

prestharpide@gmail.com
94 447 10 42
Ramon y Cajal 42 / 48014 - Deustu

	Nerea Etxaniz Osa - Mikel Aiartzaguena Agirrebeitia		Iritzia	4
	Naima Chafiq		Gureak kanpoan	5
e	erreportajea Duela 50 urteko Deustuko Olentzero			6
				<i>Aurten, Olentzeroren 50. urteurrena ospatu nahi dugu, izan ere, 1968an atera zen lehen aldiz ikazkin herrikoi hau bai Deustun bai Bizkai osoan.</i>
		Deusto Eskola	Eskola	10
	Bidarteko etxaldea (I): Ramon Ibarrenen txaleta		Behin batean	12
	Ariketa erraldoia		Artikulua	14
b	berbetan URKO VALDIVIELSO ZUECOrekin			16
				<i>30 urte ditu eta ingeniaria da Urko Valdivielso. Mendi lasterketetan aritzen da, eta Hiru Haundiak egin berri du. Ondo baino hobeto egin ere, seigarren heldu baitzen 102 kilometroko lasterketan.</i>
	Euskalduna ontziola bere onenean, 1968		Irdiak berbetan	21
				24
	FOLKLOREA 60 urte herria dantzarazten			
	KIROLA Kirol talde berri bat jaio da Deustun			
	PINTXODROMOA Arbolagaña taberna			
	KULTUR TXOTX Janire Soldevilla eta Jon Elortza Zufiaurre			

**barkua
bete
herba**

Prest!

Argitaratzailea:

BLB Komunikazioa Koop. Elk.
Tel: 94 447 10 42
Ramon y Cajal 42
Deustu 48014
bilbokoaldizkariak@gmail.com
uriola.eus
@uriolaeus
facebook.com/uriolapuntueus

Zuzendaria: Jone Gartzia Gerra

Erredakzioa: Nerea Olaziregi, Gaizka Suarez, Laura Freijo, Hektor Ortega, Nerea Cubillo, Patxi Gaztelumendi, Olatz Arregi, Josu Oleaga, Janire Soldevilla, Mikel Aiartzaguena, Nerea Etxaniz, Lur Mallea, Txema Luzuriaga, Maialen Gago, Jon Intxaurre

Kolaboratzaileak: Elorri Berto-Eskola, Deusto ikastetxea, Deustuko Ikastola, Ibarekolanda BHI, Intxixu Ikastola, San Inazioko eskola, Deustuko Gazte Lokala, Deustuko Jai Batzordea, Errondoko Auzo Etxea, San Inazioko Jai Batzordea

Argazkiak: Iñigo Azkona Bikandi

Publizitatea: Jone Gartzia Gerra

Diseinua: BOST

Maketazioa: Amaia Gil Basterretxea

Inprimategia: Antza

Ale kopurua: 2.800

Lege Gordailua: BI-571-01

ISSN: 1577 - 9017



Gehiegi?

Egia onik ez omen da, -egia guztiak dira txarrak. Beti egia esatea, gehiegikeria. Hala ere, hainbat erokeria eta amets egiteko prest izaten gara gu, ekinez lortu izan diren ezin guztien izenean. Izan ere, neurtuegia aspergarria ere izan liteke, *betiberdina*. Arte kontuetan, esaterako, gutxirekin asko esatea ederra bada ere, gehiegikeria estetikoa urregoria da barruak nahasteko eta erraiak astintzeko; hortxe dago kokxa.

Ikusi, bestela, Aronofskyren *Mother!* (2017) filma. Bikaina da, onegia agian aurrera egin ahala tripako minak eta bestelako ondoezak eragiten, baina... maite dugu "sufritzea" ere, ezta? Ama, etxea eta poeta, hiru elementu soil. Arrotzak dakar distortsioa. Alegoria ekologista gisa definitu dute Jennifer Lawrence Ama(lur) eder ahalguztidunaren


eta Javier Bardem Poeta(jainko) berekoi aseezinaren arteko harreman suntsitzaila. Horraino konta dezaket.

Urrunegi joan barik, Anjel Lertxundiren *Otto Pette*-k 25 urte bete ditu, edizio berri eta guzti. Bertan ere arrotz misterioitsu bat da abenturaren abiapuntu: mendekua, patua, krudelkeria, damua... Istorio, gogoeta eta pertsonaia indartsuak, bidaia paregabea edota amesgaiztoa. Bere garaian, zenbaitek gehiegizkotzat jo zituen 458 orri haiek eta zailegia hizkera literarioa, baina liburua hasi eta buka irentsi genuenok gozatu ederra hartu genuen. Eta gozameanean gehiegizkorik ez da.

Laster, Durangon, azoka bete Arte eskainiko zaigu: sormen-festa. Euskaraz. *DA! asko dira!* baina ez gehiegi. Gozatu!



Mikel Aiartzaguena Agirrebeitia
Gazte mugimenduko kidea



Iparra, iparrorratza eta pertsonak

Idatzi, errepasatu, PREST!-en emailera testua bidali eta atzazkalak jateari ekin diot. Urduri. Beldur akaso.

Emozio horren jatorrian pentsatzen hasiz esango nuke idazitakoa inork ez ulertzeko kezka astintzen nauela, marziano baten antzera idaztekoak.

Aurrekoan, mugimenduaren inguruan hausnartu nuen. Eragileez aritu nintzen, elkarlaguntza eta enpatiaz. Tesia argia zen, mugimendua helburu, eragilea bide.

Honek baina, baditu bere korapiloak. Eta badut sentsazioa, azalpen argiago bat merezi duela. Izan ere, bestean berrirakurri eta desegokia iruditu zitzaidan mezu bat transmititu zidan testuak. Finean, nire xedea baitzen helburuaren izenean bidea (tesian=eragilea) ahaztu behar dugula esatea.

Funtsean, orekaren muina ZAINZAN dagoela esango nuke. Era integrean ulertutako zaintzan, noski.

Bakoitzaren proiektu politikoa ondo barneratzean eta horretarako beharrezko tresnak eskaintzean, egiten duguna zergatik egiten dugun argi edukitzean. Aipatutako proiektua aurrera eraman behar duen kolektiboak zer gaitasun eta gabezia dituen onartzean, horiek nola konpondu eta indartu daitezkeen baloratzean. Eta noski, kolektibo hori osatzen duten norbanako guztien ezaugarriak eta denborak onartzean, bakoitzak eman nahi eta ahal duena argi esatean. Behetik gora eta goitik behera, noizean behin egin beharreko ariketa dela esango nuke.

Mugitzen garena iparririk ez galtzeko, iparra bilatzen iparrorratzik ez apurtzeko eta iparrorratza kalibratzen pertsonok ez zoratzeko!



Naima Chafiq

Jatorria: Casablanca (Maroko)

Bizitokia: Arangoiti

Lanbidea: Hoteletako gela-garbitzailea



“Lan baldintza txarrak ditugu hoteletako langileok”

Testua
Nerea Olaziregi

Duela zenbat urte etorri zinen?

2005ean, 17 urte nituela. Nire senarra 1999an etorri zen hona lanera eta urte batzuk beranduago ni, 6 hilabeteke semearekin. Nire herritik atera nintzen lehenengo aldia izan zen, zuzenean Bilbora etorri nintzen.

Nola sentitu zinen hasieran?

Gogorra izan zen, ez nuen hizkuntza ezagutzen, guztiz arrotza zen dena niretzat. Senarrak egun osoa ematen zuen lanean eta ni bakarrik moldatu behar nintzen semearekin. Komunikazio arazo handiak nituen, frantsesa menderatzen nuen eta ingeles apur bat banekien eskolan ikasi nuelako, baina gazteleraz hitz bat ere ez. Pazientzia apur batekin moldatuz joan nintzen.

Eta orain, gustura zaude?

Bai, oso ondo nago hemen eta ez dut beste inora mugitzeko asmorik. Kontuan hartu oso gazte etorri nintzela eta ia bizitza erdia eman dudala hemen. Familia osatu dugu, bi seme ditugu, 14 eta 4 urte

dituzte eta beraien etorkizuna hemen dago.

Arazoak izan dituzu hemen lana topatzeko?

Ez, heldu eta gutxira jarri nintzen lanean. Hoteletan egiten dut lan, gelak garbitzen, eta Bilbon orain lan handia dago arlo horretan. Hiri segurua da eta turista asko etortzen da hona.

Nolakoak dira zure lan baldintzak?

Gehienetan nahiko txarrak. Soldata baxua eta hotel gehienetan epe laburreko kontratuak egiten dizkigute.

Bereziki gustuko duzun zerbait?

Gizon eta emakumeen arteko parekidetasuna. Nire herriarekin alderatu ezker, alde handia dago. Han emakumeok errespetu falta itzelak jasan behar ditugu. Hemen seguruago sentitzen naiz, gauez bakarrik irten naiteke.

Zure herria eta familiaren hutsunea sentitzen duzu?

Ez. Gutxitan joaten naiz hara,

oporretan nahiago dut beste toki batera joan.

Zure jaioterriko ohiturak mantentzen dituzu?

Batzuk bai. Emakumeak Aniztasunean marokoar emakumeen elkartean parte hartzen dut. Besteak beste, gure jaiak ospatzen ditugu. Egun batzuk barru Basaurin bilduko gara.

Nola moldatzen zara hemen bizi diren Sahararrek?

Nik ez dut arazorik baina beraiek muga asko jartzen dituztela uste dut. Nik ez dut hemengo, Marokoko edo Saharako emakumeen artean ezberdintasunik egiten baina beraiek bai. Beraientzat gu gaiztoak gara eta nik ez dut zerikusirik gertatzen ari zaionekin.

Bertoko lagunak ere badituzu?

Asko. Hemengo lagun gehiago ditut hangoak baino. Hasieratik, jende oso jatorrarekin egin dut topo. Auzoan lagun minak ditut.





1968. urtea. Olentzero San Felisimotik ateratzen. Ezkerretik eskumara: Juanan Aranguren, Edortza Zarraga, Cristina Mendiguren, Amaia Larrinaga, Kontxi Pradera, Txema Torres eta Jose Javier Aizkorbe pasiotarra (eskusoinuarekin).

DUELA 50 URTEKO DEUSTUKO OLENTZERO

“Horra, horra, gure Olentzero”. Horrela hasten da hurbiltzen ari diren jaietan Deustuko kale, eskola eta ikastoletan hainbeste entzungo dugun abesti herrikoia. Aurten, Olentzeroren 50. urteurrena ospatu nahi dugu, izan ere, 1968an atera zen lehen aldiz ikazkin herrikoi hau bai Deustun bai Bizkai osoan.

Testua: Txema eta Andoni Luzuriaga

Gogora dezagun Olentzero gizon lodi beza-la irudikatzen dela, basoetan ikatza egiten duena eta neguro herrietara jaisten dena. Olentzeroren jatorri tradizionalaren inguruan onartuen dagoen hipotesiaren arabera, Gipuzkoa eta Nafarroako herrietatik dator, Arakil, Bera, Larraun, Leitza eta bereziki Lesakatik. Jatorria gainera, kristautasunaren aurreko garaikoa litzateke, eta horrela izanda, neguko solstizioan herrialde askotan

eta kultura ezberdinetan ospatzen diren jai paganoen arteko bat da. Kalejira amaitzeko modua, ikazkinaren erreketeta da, garai zaharrak ezereztea eta garai berriei harrera egitea irudikatzen duena, *Olentzaroa*.

Baina, zer ari zen gertatzen gizartean orokorrean, eta Deustun zehatzago, Olentzeroren ospakizun berritzailea sortzeko? Deustu Bilboko auzoa zen, baina lehenago erakunde



1967. urtea. Batzaldiko lokalaren sarreran. Besteak beste, Cristina Mendiguren, Amaia Larrinaga, Pili eta Mertxe Santamaria, Estrella, Dapousa, Bego Martinez, Txarroalde, Beni del Rio, Javi Vazquez, Dolara eta Bingen Zubiarrain ageri dira.

juridiko-administratibo propioa izan zuen elizatea izan zen, 1925ean Bilbora anexionatzera behartu zen arte. Nazionalismoaren sustrai sendoak oso barneratuta zeuden herriko jendearen artean, eta horrek frankismo garai betean hainbat talde sortzea ahalbidetu zuen: folklorea sustatzen zutenak, horien artean Bihotz Alai 1958an; euskararen irakaskuntza bultzatzen zutenak, Deustuko Ikastola sortuz 1963an; auzo elkarten mugimenduko dinamizatzaile den Familien Elkarte 1967an; helduei euskara irakastera bideratuta zegoen Zubibarra taldea; mendira irteerak egiten zituen Menditarrak; inauterriak, Santa Ageda, San Pedro eta San Pablo jaiak, San Jose erromeriak eta beste hainbat jai herriko berreskuratu eta antolatzeaz arduratzen ziren batzordeak... Elkarte horiek nortasun euskaldun, asoziatibo, aldarrikatzaile eta ludikoa zuten, garaiko ideologia frankistari aurre eginez.

Garai hartako Deustuko elizatean sortutako

ideia berritzaileak garaiko beste mugimendu kulturalekin bat zetozen. Horren adibide dira 1966 eta 1972 urteen artean euskal kultura berreskuratu eta berritzea helburu zuen Ez Dok Amairu kultura talde abangoardista eta 68ko Maiatz Frantsesa bezalako diziplina inkonformista. Testuinguru aldarrikatzaile honetan gure hizkuntzari bultzada eman zitzaion, Donostian 1968ko otsailean eskola publikoetan euskaraz irakastea lortu zenean. Urte berean, euskara batuaren oinarriak finkatu ziren, hizkuntzaren normalizazioa sustatze aldera. 1969an Iparraldean lehen ikastola sortu zen.

Taldeak Deustun

Horrela bada, eta Deustura mugatuz, funtsean euskal kultura indartu eta bideratuko zuten bi talde zeuden. Alde batetik Bihotz Alai dantza taldea, dantzen bidez folklorea zabaltzeko euren jarduera ezagunaz gain, Euskal Herriko hainbat herritako jatorrizko dantzak ikertu eta berreskura-

“Garai zaharrak ezereztea eta garai berriei harrera egitea irudikatzen du *Olentzarok*”



tzeko lana egiten zuena. Eta beste aldetik, Batzaldi aisialdi taldea. Azken hau San Pedro parrokiaren babesean sortu zen 1966. urtean, Luzarra kalean zegoen lokal batean don Justinoren gidaritzapean.

Batzaldi taldeak gazteak elkartu eta eurekin txistu, euskara, folklore eta dantza klaseak antolatu zituen, bai eta mendira irteerak ere. Taldea 60 pertsonaz osaturik zegoen, antolaketa eta programazioa batzarretan hartutako erabakien arabera egiten zen, bertako lehen presidentea Edortza Zarraga izanik. Edortza, presidente izateaz gain, txistu irakasle ere bazen. Aipatu beharra dago, talde honek Ez dok Amairu taldearekin Deustun kontzertu bat antolatu zuela.

Jakin dugunez, 1967an Batzaldi taldeak eta San Felizisimo parrokiaren jarduten zen Gaztetxorta dantza taldeak azken urteetan galdu ziren San Pedro jaiak berreskuratu eta antolatu zituzten.

Gaztetxorta, beste batzuen artean, Jose Luis Orbeak gidatzen zuen taldea zen, Bilboko auzo ezberdinetako lagunek osatua, 1961ean hasi eta 1967an desagertu zena. Euren jarduera anitza zen, baina nabarmen-

ena folklorea zen. Olentzeroren agerpenaren aurretik, Gabonetan Deustuko kaleetan ibiltzen ziren, gabon kantak abestuz eta beranduago jaiotza biziduna irudikatuz.

Batzaldira bueltatuz, bertako mendi taldea izan zen, beren mendi ibilaldien programazioari esker, taldearen kohesio eta funtzionamendu hobea lortu zuena.

Olentzero, laiko eta euskalduna

Heldu zaizkigun datuen arabera, Jose Javier Aizkorbe –goizuetarra– eta Xabier Mendi-guren pasiotarrak izan ziren, beste apaizgai pasiotar batzuekin batera, Olentzeroren proiektu euskaldun, laiko eta berria bultzatu zutenak.

Aurreko hori, berritasun eske zeuden garaiako deustuar gazteei berehala deigarri iruditu zitzaion. Juanjo Gonzalez de Mendibil eta Mariano Luño –Batzaldi eta Bihotz Alai taldeetako ordezkariak– Lesakako Olentzeroren ideian interesatuta zeuden, eta beraz, Pedro Urrutiarekin batera, Lesakara joan ziren 1967an, proiektu horren inguruko informazio bila. Lehen Olentzero honen talde bultzatzailean Juanan Aranguren ere baze- goen, EGIko militantea zena, eta ahalegin

handia egin zuen Olentzeroren lehen irteera aurrera eramateko. Geroago, Juananek ja-rrera politiko konprometituagoetara jo zuen, Guardia Zibilak 1972an Urdaxen hil zuen arte.

Bizkaiko lehen Olentzero

1968an, Bingen Zuriarrainek gidatzen zuen Batzaldi eta Bihotz Alai taldeen elkarlanari esker, eta pasiotar eta Gaztetxorta desager- tuko kide batzuekin batera, Bizkaiko lehen Olentzero kalera atera zen Deustun.

Egun horretan irten ziren txistularien ge- hiengoa Bihotz Alaik La Sallen eskaintzen zituen txistu klaseetatik zetorren: Txema Torres, Mariano Luño, Kontxi Pradera, Juan- nan Aranguren eta Edortza Zarraga, azken honen Batzaldiko bi ikaslerekin batera, Amaia Larrinaga eta Cristina Mendiguren. Txistulariekin batera bi soinu- jole ibili ziren, horietako bat Jose Javier Aizkorbe pasiotar- ra izanik.

Lehen Olentzeroren ibilbideari dagokionez, San Felizisimotik irtenda, Madariaga etorbi- dean lehenik eta Done Petritin gero ibili zen. Gaur egun, Done Petrin hasi eta Deustuko beste hainbat kaleetan zehar ibiltzen da. Amaieran, eskuak eta aurpegia kentzen zi- tzaizkion Olentzerori eta ohitura zen legez, erre egiten zen. Garai hartan, aldarrikapen kultural eta politikoak kaleko edozein adie- razpenetan txertatzen ziren, eta ohikoak zi- ren Olentzeroren kalejiran euskara, amnistia edota independentziaren aldeko aldarrika- penak.

Ibilbidean zehar, diru bilketa ere egiten zen, publikoki helburu sozial eta erlijiosoetara bi-

deratuta zegoena, baina atzean helburu po- litikoa zuena. "Horra, horra, gure Olentzero" zihoen abestiarekin batera, garaiko beste batzuk ere abesten ziren, *Ikusi mendizaleak* eta *Zenbat gera*, adibidez.

Olentzeroren lehen irteera honetan jantziei garrantzi handia eman zitzaien, eta horiek La Casillan alokatu ziren. Jasotako datuen arabera, Iñaki Landa margolaria prest ager- tu zen Olentzeroren aurpegia eta eskuak egiteko, sua baino lehen hurrengo urterako gordetzen zirenak. Gorde ez zena Javi Za- rragak bere aitaren arropa erabiliz egin zuen lehen alkandora izan zen.

Errepresio eta diktadura gogor urteak

Ez dezagun ahaztu 1968 urtea zela, dikta- dura frankistaren garai gogorra. Bi anekdo- ta dira horren adierazle. Lehenengoak Kale Nagusian zegoen Informazio eta Turismo Ministerioko bulego batera garamatza. Ber- tara jo zuten Olentzeroren antolatzaileek ka- lejiran kantatuko ziren abestiak euskaraz eta gazteleraz entregatzera, agintarien baimena lortzeko.

Bigarrenari dagokionez, antolatzaileek ez zuten nahi antolakuntzatik kanpoko inork ekitaldiaren argazkirik ateratzerik, errepre- saliarik egon ez zedin. Baina partaideak Done Petrira hurbiltzen zihoazen heinean, TVE agertu zen, ekitaldia grabatzeko as- moarekin. Antolatzaileek horretarako diru- tza ordaindu behar zutela argudiatu zuten, kameralariek ezezkoa eman ziezaieten. Hala ere, badago Antton Zarragak super8 formatuan egindako grabaketa bat, bai eta Gonzalez de Mendibil eta Larrinaga familiak egin eta utzitako argazki batzuk ere.

“Olentzeroren proiektu euskaldun, laiko eta berria bultzatu zuten”



www.renault.es / 902 333 500

RENAULT BILBO BERRI

**IBILGAILU BERRI ETA BIGARREN ESKUKOEN SALMENTA
MANTENTZE ZERBITZU AZKARRA • MEKANIKA • KARROZERIA**



BILBO BERRI JON ARROSPIDE, 20. TEL. 94 448 39 00. DEUSTU. www.bilboberri.com

RENAULT presentatzen du **ELF**



ARTEA TRESNA HEZITZAILE GISA

Guggenheim museoak 2018-2019 ikasturtean Artea ikasbide hezkuntza programan parte hartzeko aukera zabaldu digu. Zenbait tailerren bitartez, ekimen honek artea tresna hezigarritzat erabiltzen du.

Artea ikasbide hezkuntza-programak ikasketa prozesuan tresna gisa erabiltzen du artea. Argazkigintza, pintura, eskultura edo performancea bezalako baliabideen bitartez aukera ematen die ikasleei zenbait gairi irudimenez era pertsonalean heltzeko. Ikusten dutenaren inguruan hausnartzera animatzen ditu proiektuak, artearen betaurrekoak jantzi eta muntatutakoa desmuntatzera, itsatsitakoa apurtzera, antolatutakoa desordenatzera... eta haien erara berreraiki-tzera. Horrela, aurkikuntza eta esplorazio tres-

na bihurtzen da artea, arretaz begira-tzea, hausnartzea, sortzea, komunikatzea eta kolaboratzea ezinbesteko dituen bidaia batean.

Eskola askok hartuko dugu parte *Artea ikasbide* programan, baina proiektu oso desberdinetan egingo dugu lan. Irakasleen helburuen arabera, museoko artista eta hezitzaileek proposamen egokituak diseinatzeko dituzte. Unirate didaktiko ezberdinak osatzen dituzte, talde bakoitzaren gaitasunak eta interesak aintzat hartuta.

Testua eta argazkiak
Deusto eskola





BIDARTEKO ETXALDEA (I): RAMON IBARRAREN TXALETA

Denontzat da ezaguna Bidarte, lehenengo barrutiko auzo-etxea da eta. Baina bere historia ezkutuan gelditu da eta ez dago batere argi nor ezaikiarazi zuen eta zergatik. Are gutxiago dakigu erantsi zitzaion eraikinaren gainean. Eta galdera gehiago datozkit: zer gertatu zen gerra ostean? Ospitalea izan zen, Amaetxea, zainketa aringarriak? Goazen argia ematera.

Testua: Txema Luzuriaga

Bilboko albo-herria izanda, XIX. mendetik aurrera goi burgesiako familia askok etxeak eraikiarazi zituzten Deustuan. Unibertsitatean etorbideetik hasi ziren, Kabako etxe dotore biek, eta ondoren ibai ertzetik Deustuan barrena zabaldu ziren: Okeña txaleta, Villa Carola eta beste asko.

Aipatzea merezi duten beste eskutada bat eraikin altzarazi zuten Deustuan. Adibidez, Kontsularen etxea esaten zieten etxe biak


(Bidarteren aurrean bata, Deustuko zubiaren ondoan bestea). Madariaga etorbidean Villa Maria Luisa zegoen. Ibarrekolandan Zubiria kondeen jauregi ezagunak eta Mendieta edo Otaola familiarenak nabarmendu ziren. Erriberan Ustararen etxea eta landiola edo Madalenotarren jauregia zegoen. Eta Arangoitin Miramar atondu zuen Mariano de la Torrek.

Horietatik guzietatik gutxiak iraun du, gomutaz gain. Bidarte da, beharbada, oraindik miretsi dezakegun bakanetakoa.

Bidarte izeneko etxaldeak Bilbo-Plentzia errepidea zeukan muga iparraldetik, Olabeagako bidea (gero Madariaga bidea eta gaur Madariaga etorbidea) hegoaldetik, Adolfo Basaberen lursaila ekialdetik eta Fidela Iturriagarena mendebaldetik. Herriaren bihotz erlijiosua eta politikoa hurrean zeuzkan, Done Peri elizan eta Udaletxean alegia, biak ala biak Done Peri plazan.

Bidarteko jauregiaren eraikuntzarekin lotutako agirietan arakatuta, zaharrena 1894an aurkitu dut. Urte hartako irailaren 11n Ramon Ibarra Arregi bilbotar jabeak idazkia bidali zion Deustuko alkateari eraikuntza lanetarako baimena eskatzeko. Zehazki, altxatu nahi zuen “un edificio destinado a cuerdas, cocheras y habitaciones”, eta planoak erantsi zizkion idazkiari. 1895ean atzera eskatu zuen baime-na: “en los terrenos de su propiedad sitios en esta anteiglesia [Deustua] proyecta construir un edificio habitable”.

1929ko uztaileko planoak





Bidarteko etxaldea 1940. urtean

Ramon Ibarra Arregi

Nor zen ba eskabide biak sinatu zituen Ramon Ibarra hura? Ibarretar familia zabaleko semea zen, enpresa-gizona eta politikaria. Bilbon jaio zen 1852an eta hil Paben hil zen, Frantzian, 1903an. Gurasoak, Juan Maria Ibarra Gutierrez de Cabiedes eta Luz Arregi Heredia. Teresa Lopez de la Calle Landabururekin (1859an jaioa) ezkondu zen eta sei seme-alaba eduki zituzten: Maria de los Dolores, Enrique, Ramon, Jose Luis, Maria del Carmen eta Antonio.

Ingeniari industrialaren titulua eskuratu zuen. Bilboko alkateordea izan zen. 1898ko hauteskundeetan, Altos Hornos de Bilbao enpresako administrazio kontseiluko presidenteordea, Banco de Bilbao eta Compañía Orconerako kontseilaria, La Papelera Españolako presidentea, Basauriko La Basconiako sortzailea eta beste negozio askoren jabea zela, bere loba Adolfo Urkixorekin lehiatu zuen Barakaldoko barrutian Espainiako Kongresuko jesarlekua lortzeko, baita irabazi ere. 1903an senatari atera zen. Bada, oligarkiako pertsonaia garrantzitsu horren bizilekua izan zen Bidarte. Ibarretar familiak, artean, bazuen

Deustuan beste egoitza batzuk, Kabako etxeak besteak beste.

Deustuko Udalarai aurkeztu zion proiektua lau solairuko txaleta zen: erdisotoa, behekoa, lehenengoa eta bigarrena, azken hori txapitulaformakoa. Severino Atxukarro arkitektoak egin zuen, 1897an. Helbidea, Olabeagako bidea 6. zenbakia. Bere jabearen heriotza gertatu arte erabili zuten. Ondoren, senar-emazteen oinordekoen esku gelditu zen, alegia, seme-alaben esku.

Harrez gero ez dut aurkitu Bidarten egin-dako bizimodu eta aktibitateei buruzko argibiderik, baina baliteke hipikarekin lotutako zerbait egin izana, deustuarren gomutan baitago hura hipodromoa izan zela. Bilboko Aurrezki Kutxak etxaldea erosi zuen 1930ko urtarrilaren 19an, Bilboko Celestino María del Arenal notarioaren aurrean, saltzaileak sei seme-alabak zirela. Bidarte 328. zenbakidun etxadian zegoen, B aldean, eta 54.054 metro koadroko azalera zeukan. Orotara, 1.250.000 pezeta ordaindu zuen kutxak, lur-saila eta jauregiaren truke.



Kalderapeko
euskal kultur gunea

www.kalderapeko.com

txakur kalea, 1. 48005
bilbo • euskal herria
tfnoa: 94 416 40 99



ARIKETA ERRALDOIA

Deustualdean 2.800 lagun inguruk eman dute izena azaroaren 23an abiatutako Euskaraldian. Ahobizi zein Belarriprest txapa jantzita, 11 egunotan euskaraz bizitzeko saialdi kolektiboan daude murgilduta.

Testua eta argazkia:
Prest!

Euskaldunak aktibatzea eta hizkuntza ohiturak aldatzea da Euskaraldiaren helburua. Horren asmoz, ariketa soziala proposatu digu: Belarriprest zein Ahobizi rolag hartuta, euskara egunerokotasunean gehiago erabiltzeko erronka. Belarriprestek euskaraz dakitenei eurekin egiteko gonbitea luzatuko diete, eta Ahobiziek ulertzen duten guztiekin euskaraz aritzeko ardura hartuko dute. Horrela, uste baino euskaldun gehiago daudela erakutsi nahi du ekimenak, eta euskara pentsatzen duguna baino sarriago erabil dezakegula frogatu.

Euskaraldia Deustun

Ariketari hasiera emateko argazki erraldoia egin zuten deustuarrek joan den azaroaren 22an. Horren aurretik, Santa Sezilia eguna zela aprobetxatuz, musikaz alaitu zuten giroa. Trikitilariak eta Kantugintza Taldeko eta Bihotz Alaiko lagunak kalejiran ibili ziren Deustuko kaleetatik. Gero, txokolate beroa eskuetan egin zioten ongietorria Euskaraldiari.

Azaroaren 29a Biziprest eguna izango da Deustualdean. Bertso klasea, ardo dastaketa, haurrentzako ikuskizuna, luntxa, ekitaldia eta dantzaldia, izango dira Done Petri enparantzian. Horretaz gain, iluntzean Aferak bertso dinamikaren saioa izango da Herriko tabernan. Azaroaren 30ean, ordea, Deustuibarran eta San Inazio-Ibarrekolandan antolatu dituzte jarduerak. Erriberan Taskako Trobadorearen kontzertua izango da 20:30ean, eta egun horretan bertan kalejira egingo dute San Inazio eta Ibarrekolandan. Argazkia ere aterako

dute auzokideek, Euskaraldiari babesa adierazteko.

Horretaz gain, abenduaren 2an Bilboko Biziprest eguna ospatuko dute. Argazki erraldoia, musika, kale animazioa, puzgarriak, herribazkaria... planik ez da faltako Bilboko kaleetan euskaraz bizitzeko.

Urtebeteko lana bizkarrean

11 egun iraungo ditu ekimenak, baina aste luze bateko lana baino gehiago dauka atzean. Deustun, hain zuzen, orain urtebete burutu zuten 11 egunez euskaldunekin euskaraz aritzeko dinamika. 1.000 lagun inguruk hartu zuten parte aurtengo Euskaraldiaren aurrekari izan zen ariketan.

Ordutik helmuga aste honetan zuten jarrita Deustualdeko euskaldunek. Asko izan dira ariketa kolektibo erraldoi hau antolatzeke lanetan aritu direnak, bai eta ingurukoak aktibatzeke ardura hartu dutenak ere.

Ahobizi zein Belarriprestek formakuntza jaso dute Müllerrenean antolatutako saioetan. Izan ere, hizkuntza ohiturak aldatzea ez da batere erraza, eta tresnak behar dira horretarako.

Erronka handia proposatzen du Euskaraldiak, kolektiboan erantzutea beste biderik ez dago. Behin jolasa amaituta, balantzea egiteko eta ondorioak ateratzeko unea etorriko da. Hau izan da euskaldunak era kolektiboan aktibatzeke lehenengo mugarria; azkena, 11 eguneko ariketa 365 eguneko ohitura bihurtzea.



DEUSTU KOLOREZTATZEN

Kolore zaharrak piztuz, berriak batuz eta denak nahasiz, Deustu koloreztatzen jarraituko dugu luzez.

Aspalditik Deustuko Kuadrillen egoera maldan behera dago. Motibazio eta ordezkari falta, berrikuntza eza eta kuadrillen kopuruaren beherakada nabarmenak dira azkenaldian. Horren ondorioz, ikasturtea hasi eta kuadrillok lehenengoz elkartu ginenean, egoera aztertu eta hausnarketa egun bat prestatzeko erabakia hartu genuen.

Abenduaren lehena izango da egun hori, non denon iritzia entzun, eztabaidatu eta arazoei konponbideak bilatzeko aukera izango dugun. Antolatzeko gogoia berpiztu, harremanak sortu eta Deustu kuadrillon jertseekin koloreztatzen jarraitzeko antolatu dugu egun hau.

Egun horretatik indarberrituta atera nahi dugu, Deusturi jaietan, inauterietan eta beste hainbat data esanguratsuetan kolorea ematen jarraitzeko. Horren asmoz, gure arteko harremanak indartu, ekintza berriak antolatu eta jaiak gure erara disfrutatzeko aukerak zabaldu nahi ditugu. Era berean, gure burua ezagutzera eman eta jende zein belaunaldi berriak erakartzeko ahalegina egingo dugu.

Horregatik zu ere, Deustuko kuadrillaren bateko kide zarena, abenduaren lehenean gurean behar zaitugu. Goizeko 10:00etan gosari goxo batekin hartuko zaitugu Gazte Lokalean. Ostean, hausnarketa saioari ekingo diogu. Bazkaria eta gero, kuadrillok ohi lez juergan borobilduko dugu eguna.

Testua eta argazkiak:
Deustuko kuadrillak

Deustuko Kuadrilla eguna
Abenduak 1

10:00 GOSARIA. Deustuko Gazte Lokalean
Kafea, txokolatea...

11:00 HAUSNARKETA. Deustuko Gazte Lokalean
11:00-11:30 Sarrera
11:30-12:30 atzera begira...
12:30-14:00 ...aurrera egiteko

14:00 POTEOA. Deustutik

15:00 BAZKARIA. Deustuko Herriko Tabernan
Indabak txerrikiekin*
Postrea

*Sukertza bagefua egongo da.
Bonoak 2€ | satei tabernan, Toki Berri tabernan eta Deustuko Herriko Tabernan salgai.
Ezbita Facebook eta Instagram orrialdeetan.

17:00 SORPRESAK. Deustutik
1000etik aurrera kontzertuak egongo dira Deustuko Gazte Lokalean

Abendua

- Astelehena 28 **TXOBORO:** txoboro mundura
- Osteguna 27 **DANTZARI "Boli bili boli"** dantzaritza
- Ostirala 26 **BEHINOLA "Txerri txerrien ipuin musikatua"** ipuin kontalaria

Abendua

- Astelehena 3 **ZIEKUN ZIEKO "Tina":** txotxongiloak
- Osteguna 3 **ENAITZ:** ipuin kontalaria
- Ostirala 4 **SUDURKERIAK "Mugi mug!":** haur berbena

**Luskararen etxea,
gure etxea!**

SARRERA DOAN
Ekintza guztiak goizeko
11:00etan dira.



Non?
Agoite plaza
Lehendakari Agirre
130 ondarea, Bilbo
Sarrite



Kontaktua
• www.azuefunfun.com
• info@azuefunfun.com
• 94 402 80 81



Jarraitu
Facebook, Twitter, Instagram, YouTube, SoundCloud, Spotify, etc.



berbetan

URKO VALDIVIELSO ZUECOrekin

Mendi korrikalaria

“Hiru Haundiak lasterketa

30 urte ditu eta ingeniaria da Urko Valdivielso. Mendi lasterketetan aritzen da, eta Hiru Haundiak egin berri du. Ondo baino hobeto egin ere, seigarren heldu baitzen 102 kilometroko lasterketan.



bizitzan behin egin beharrekoa da

Noiz hasi zinen mendian korrika egiten?

Orain dela bost urte. Futbolearen aritzen nintzen lehen, baina ezin nuen lana eta ikasketekin batera egin eta utzi egin nuen. Horregatik hasi nintzen korrika egiten.

Bakarrik edo taldean?

Nire kabuz hasi nintzen. Hasieran asfaltoan egiten nuen korrika, baina berehala pasatu nintzen mendira. Beti gustatu izan zait mendia, ez dut apenas asfaltoko lasterketarik egin.

Talde batean zaude orain.

Bakarrik lehiatzen hasi nintzen, baina talde bat nahi nuen, jendea ezagutzeko, elkarrekin entrenatzeko eta lasterketak taldean egiteko. Lagun baten bitartez Miri-billako talde bat ezagutu nuen eta oraindik han nabil.

Mendi lasterketa luzeak egiten dituzu.

20-30 kilometroko lasterketekin hasi nintzen, gero maratoiekin, gero 40 kilometrokoekin, 50ekoekin, 60ekin...

Nola egin zenuen jauzi 100 kilometroko batera?

Hiru Haundiak lasterketa bizitzan behin egin beharrekoa da. Urte hasieran dortsalen zozketa egin zutenean izena eman nuen eta bat egokitu zitzaidan. Hiru Haundiak baino lehen egin nuen lasterketa luzeena 60 kilometrokoa zen, Benasquen.

Seigarren heldu zinen helmugara. Espero zenuen?

Inolaz ere ez. Aurreko urteetako sailkapenak eta ezagutzen nituen korrikalarien denborak ikusita, nire asmoa 13-14 ordu egitea zen, baina 12 ordu eskasean amaitu nuen.

Luzerako emango du horrenbeste denborak.

Gauza asko pasatzen zaizkizu burutik: hurrengo eguneko bazkaria, garagardoak, beharlekuko gauzak, bikotea, familia... 12 ordu horietatik hamar eta erdi bakar bakarrik egon nintzen, inorekin hitz egin gabe. Muga txikiak ipini nizkion nire buruari: Gorbeia, gero Ubidea, Otxandio... eta horrela, txiri-txiri, helmugara heldu nintzen arte.

Zelan prestatzen da horrelako frogata bat?

Niretzako oso gogorra izan da. Entrenamenduak oso luzeak dira, dieta, juergarik ez, afari eta bazkaririk ez... Entrenatu, entrenatu eta entrenatu. Azken hilabetean goizeko bostetan joaten nintzen korrika egitera, beharrera joan baino lehen, eta arratsalde berriz entrenatzen nuen... Asteburuetan bost orduko entrenamenduak egiten nituen, edo gauzez ateratzen nintzen frontala frogatzeko eta gorputza ohitzeko... Hori dena landu behar da eta denbora asko behar da.

Eta psikologikoki?

Egia esan ez dakit zelan entrenatzen den

“Nire buruari esaten nion ez nuela aguantatuko, baina barruan zerbaitek esaten zidan ondo egin nezakeela”

berbetan

URKO VALDIVIELSO ZUECOrekin

▷ ▷ SAKONEAN

“Badakit 100 kilometro korrika egitea ez dela ona gorputzarentzat”

Zerk animatzen zaitu korrika egiten jarraitzera?

Helmugara heltzean bikotea, familia eta lagunak ikustea. Momentu horretan esaten diot nire buruari “hilabete guzti hauetako lanak merezi du, hau da saria”. Hiru Haundiak lasterketan hainbeste emozionatu nintzen ezen negarrez heldu nintzen.

Zer ikasi duzu urte hauetan?

Mendiko lasterketak desberdinak direla. Lagunen artean zaude, korrikalariak elkarri laguntzeko prest daude... asfaltoko maratobietan desberdina da.

Noiz arte jarraitzeko asmoa duzu?

Nik badakit 100 kilometro korrika egitea ez dela ona gorputzarentzat, eta hankak eta belaunak nekatu egiten direla, baina dioten bezala, gus-tuko tokian aldarparik ez.



hori, bakoitzak bere trukoak izango ditu, baina funtsezkoa da. Ni lau ordu egoten naiz mendian korrika eta ondo nago, nire gauzetan pentsatzen. Baina hor eman behar dituzu ordu horiek guztiak, gero hama-bi ordu egongo zarelako bakarrik. Horrelako lasterketak egiteko oso ondo prestatu behar zara, bai fisikoki zein mentalki.

Zelakoak dira lasterketa aurreko egunak?

Oso urduri egon nintzen. Nire lehenengo *ultra* (mendi lasterketa luzea) zen. Nire buruari esaten nion ez nuela aguantatuko, baina barruan zerbaitek esaten zidan ondo egin nezakeela.

Eta ondorengoak?

Mundialak, itzelak! Domekan tripak kilokolo izan nituen, egun txarrena izan zen. Baina astelehenean normal nengoan, eta hankak oso ondo nituen. Horrek esan nahi du fisikoki oso ondo heldu nintzela. Lasterketa baten ostean zure indarberritzea zelakoa den ikusita jakin dezakezu zein egoera fisikokan zauden, eta ni oso indartsu nengoan. Pentsa, martitzenean berriro joan nintzen korrika egitera!

Lasterketa mitikoa da Hiru Haundiak.

Zelako giroa egoten da?

Sekulakoa! Ni Gorbeiaiko gurutzera 01:20ean heldu nintzen, pentsa han egi-

ten zuen hotza eta haizea. Bada jendetza zegoen gu animatzen. Ilek zutundu zitzaizkidan, benetan. Ubidean, Otxandion, Urkiolan... ere egundoko festa zegoen, trikitixa eta guzti.

Gauetz korrika egiteak zailtasun teknikoak behar ditu izan.

Oso lainotsu zegoen eta frontalarekin oso gutxi ikusten zen, metro bat aurrera baino ez. Urkiolatik Anbora joateko pista zabal bat dago, baina erditik joatea ezinezkoa zen. Markak jarraitzen gindoazen eta zuhaitzetan zeudenez jarrita, bat-batean arbolarekin egiten genuen estropezu.

Gehienek ia 24 ordu behar dituzte Hiru Haundiak egiteko.

Berez ez da lasterketa lehiakorra. Askok oinez egiten dute eta horrek ere meritu handia dauka. Helmugan giro hobea egon zen arratsaldean ni heldu nintzenez baino.

Zer daramazu gainean 12 orduz korrika aritzeko?

Lasterketa honetan aurreko postuetan joan ahal izateko laguntza ezinbestekoa da, osterantzean ezinezkoa da. Nire bikotea eta senideak anoa postuetan egon ziren laguntzen, edaria eta janaria ematen, baina hortik kanpo debekatuta dago laguntza jasotzea. Soinean eraman beharreko nahitaezko materiala ere badago: zira, frontala, tapaki termikoa, motxila, gutxienez litro bat ur...

Non entrenatzen zara?

Zamudioko parke teknologikoan egiten dudanez lan aste barruan inguruko mendietan ibiltzen naiz. Ez dira oso altuak, baina bada zeozer. Gainera asfaltoa ere badago eta hori ere entrenatu behar da, gustatu ala ez. Asteburuetan Pagasarri, Ganekogorta, Arnotegi... ingurura joaten naiz. Askotan beharlekutik etxera nator korrika egiten, Lezama, Ganguren eta inguruko mendietatik. Noizean behin Gorbeia edo Anbora joaten naiz, baina normalean hemen inguruan entrenatzen dut.

Zein da buruan duzun hurrengo lasterketa?

Hau ikusita luzea –barreak-. 2019ko nire helbururik handiena Benasqueko Vuelta al Aneto (55km/3.630 m+) lasterketa ondo egitea da. Bi aldiz egin izan dut eta seigarren eta zazpigarren geratu naiz. Aurtun podiumean sartu nahi dut.

Zein da gehien gustatu zaizun lasterketa?

Izabako Camille Extreme (31km). Herri guztia bolkatzen da lasterketan, izugarria da. Benasquekoa ere oso polita da, oso giro ona dago... eta Pirinioak dira.

Pirinioak gogoko dituzu orduan.

Hemen pila bat mendi eta txoko zoragarri daukagu, adibidez Gorbeia, Anboto eta Aizkorri. Baina Pirineotan 2.000-3.000 metroko mendiak daude. Izabatik Baqueirarako gunea baino ez dut ezagutzen, baina nire ustez mendi politenak han daude.

Eta gogorrena, zein izan da?

Bielsan egin nuen 45 kilometroko bat. Irabazi egin nuen, baina psikologikoki asko sufritu nuen. Lehenengo nihoan, presio handiarekin, atzekoa zenbatera zetorren jakin gabe... oso estresagarria izan zen, batez ere azkeneko hamar kilometroak. Helmugara heldu arte atzerantza begira egon nintzen, aurreratuko ninduten beldur. Eta azkenean bigarrena 15 minutura sartu zen.

Zer da korrika egiteaz gehien gustatzen zaizuna?

Niretzako ondo heltzearekin nahikoa da. Jende asko ikusten dut hasierako kilometrotik sufritzen, baina nik ez dut horrela korrikarik egiten. Nik lasterketa osoa disfrutatzen dut eta ondo iristen naiz. Hiru Handietan ume batek bezala gozatu nuen. Gainera ez nuenez espero horren ondo joatea eta oso fresko heldu nintzen helmugara.

Inoiz oinez joaten zara mendira?

Orain ez, soilik perretxikotan baldin banoa. Lagunekin mendira noanean bueltako ordua eta tokia zehaztu eta korrika joaten naiz. Jada ez noa pasean mendira.

**“Gorbeia
gurutzera heldu
nintzenez
ileak zutundu
zitzaizkidan”**

AISSIALDIA

Txepetx Aisialdi Taldea martxan

Urteetako geldialdiaren ostean aisialdi taldea berrartzea erabaki dute San Inazio eta Ibarrekolandako zenbait gaztek. Helburua auzoko ume eta gazteei euskaraz aritzeko gu- neak eta jarduerak eskaintzea da. Euskara “ondo pasatzeko hizkuntza” dela erakutsi nahi dute, eta horretarako ekintzaz beteriko egutegia prestatu dute. Hasteko, jaialdia antolatu zuten azaroaren 17an. Izen emate kanpaina abiatu zuten egu- nean bertan. Lehen Hezkuntzako 2. eta 6. maila bitarteko haurrak urtarilerara arte matrikulatu aha- lko dira. Bien artean, izena eman zein ez, hainbat jardueraz gozatze- ko aukera izango dute gaztetxoek. Esaterako, abenduaren batean eta 15ean jolasak egingo dituzte, eta PINera irteera antolatuko dute. Informazio gehiagorako: txepetxsa- ni@gmail.com.

BOLUNTARIOTZA

Etorkin gazteak laguntzeko deia Ibarrekolandan

Harribide Fundazioak orain zortzi urte jarri zuen martxan ‘Gaeuan’ progra- ma. Kalean dauden gazte etorkinei aterpea emateaz gain, elkartrukerako eta harremanak sartzeko aukera ere ematen du proiektuak. Boluntarioek gazteein afaltzen dute, solastatzeko eta jolasteko denbora hartzen dute, eta nahi izan ezker haiekin lo egi- ten dute. Ibarrekolandako parrokiari, Ekaitz taldearekin elkarlanean, sei gazterentzako eta bi boluntarioentzako oheak prestatu dituzte. Bolun- tariok txandak egingo dituzte gaztee- in afaldu, denbora eta esperientziak partekatu, eta lo egiteko. Txandak betetzeko laguntza behar dute eta horretarako laguntza eskatu die- te auzokideei. Parte hartu nahi dutenek gizazblai@harribide.org helbidearen bitartez egin dezakete.

HIRIGINTZA

Arangoitiko bizilagunak kexu

Bihotzaran Arangoitiko auzokideen elkarreak salatu du 60 zuzkidura- alojamendu biltzen dituen eraikina amaitu bai, baina ingurua urbaniza- zatu gabe utzi duela Eusko Jaur- laritzak. Behartsuentzako etxebi- zitzak dira ostatuok, eta oraindik hutsik daudela ohartarazi dute arangoitarrek. Eusko Jaurlaritzak duela urte erdi amaitu zuen eraiki- na, baina ingurua “gutziz utzita” dagoela salatu dute auzokideek. Utzikeriaren ondorioz hainbat la- purreta eta apurketa ere izan dira inguruan. Behin baino gehiagotan saiatu dira Bihotzaran elkarteko kideak Eusko Jaurlaritzarekin ha- rremanetan jartzen, baina ez dute administrazioaren erantzunik jaso.



Ikur frankisten aurkako kanpaina Deustu eta San Inazion

Francoren heriotzaren urteurrenean Deustuko eta San Inazioko Gazte Asanbladek ikur frankisten aurkako kanpaina abiatu dute. Eliseo Migoya plazako plakari margoa bota eta in- formazio kartelak pegatu dituzte ingu- ruan. Eliseo Migoya y Tore erregimen frankistako kutxen presidentea izan zen, eta ume jaio berrien lapurreta eta salmantan zuzeneko esku hartzea izan zuen. Pedro Astigarrak plaza dauka

bere izenean San Inazion. Auzokideek salatu dutenez, 1937ko ekainean tro- pa frankistek Bilbo hartu eta gero egin zen Udaltzarrean alkatetza ordezkari izendatu zuten, eta 1963an Bilboko urrezko domina frankista eman zioten. San Ignazioko atari batzuetan oraindik plaka frankistak ageri direla salatu dute, sindikatu bertikal izenez ezagu- na den *Organizacion Sindical Españo- laren* ikurra, hain zuzen.





Urtea: 1968

Txema Luzuriaga

Euskalduna ontziola bere onenean

Argazki panoramiko honetan Deustualdeko beheko aldea eta itsasadarra ikus ditzakegu. Ezkerrean Kortadiko zelaiak ageri dira, Los Tilos garagardotegia zegoen tokian. Itsasadarrean Euskalduna

ontziola hauteman daiteke bere onenean. Eskuinean Bilbo eta Portugalete batzen zituen trenaren erraiak daude.

FOATek utzitako argazkia.

Segi Deustualdean euskara sustatuz. Eskerrik asko denoi!

~IZEKI~
TABERNA
 BETI ZIZEKAN SUA
 argi bat izeki zen zeruan
 su horidun sugarra ostopo
 itzalsuen atzean
 Ramon & Kaja 26
 DEUSTU

DENDA IREKIERA
 Gizonentzako denda

Level 1

Madariaga 10 DEUSTU
 level1.es 946 85 53 80

Optica
Avenida

Agirre Lehendakaria, 147 Tfonoa:
 SAN INAZIO 94 475 11 24

ATXURI
TABERNA

Luzarra 1
 Deustu
 946 75 40 17

BREST

kafetegia
 Blas de Otero, 5
 Tfnoa: 94 447 95 43

Alonso Pertsianak

Plaza Celestino M^a del Arenal, 12
 48015 Deustu-Bilbao
 Tel.: 94 600 14 24
 alonsoper@euskalnet.net

Urrunago zertarako?
 Deustuko Liburudenda
 San Pedro Plaza 4

Yoki Berrri
 Taberna
 Good vibes!

Luzarra, 6 - Deustu
 @tokiberritaberna

1924tik Deustun

Tintorería
La Flor

Julio Urquijo 3 - Deustu
 94 475 18 29

Mantak, edredoiak, ezkontza eta jaunartze
 jantziak...garbitzen ditugu

artez
 euskara zerbitzua

Probatu
herrizki.eus

ANDROID APP Google play Apple App Store

Ramon y Cajal, 8 behea
 48014 Deustu
 tel. 94 475 22 33
 matxintxu@aeknet.net

Matxintxu
 aek ■ euskalategia

Matrikula zaitetz! **aek**

Nailan
 Parquetak - Bamizak

Morgan kalea z/g
 48014 Deustu - Bilbo

tfno: 94 475 67 84
 nailanparquet@euskalnet.net

RONDOKO
 HORTZ KLINIKA

Iratxe Jimenez Bobadilla
 ODONTOLOGO ELKARGOKIDEA ZKIA: 855

Odontologia orokorra eta prebentiboa
 Ume eta helduak
 Tratamendu estetikoak eta garbiketa
 Peridontzia eta protesi kengarriak
 Ortodontzia

PADI
 OSAKIDETZA

Errondoko z/g, SAN INAZIO
94 475 5932
 E.P.S. 425/97

Bitxidenda

Sabin
 Erlojudenda

Rafaela de Ibarra, 6
 Tfnoa 94 475 63 16

PERSIANAS
KM
CERRAMIENTOS

Deitu eta Ikusi!!

PERTSIANAK ETA ITXIDURAK

Araneko, 28 - 48014 Bilbao
 TEL. 94.447.70.32
 E-MAIL: persianaskm@persianaskm.com
 www.persianaskm.com

BIDAURRE
 elektrizitate eta margo-lanak
 2daurrelan@gmail.com
 669 42 76 23

**Indarkeria sexistaren
aurkako eguna da azaroak 25.
Zelan uste duzu aurre egin
dakiokeela biolentzia
sexistari?**



**Yaiza
Deustu**

Nire ustez etxean irakatsi behar dira matxismoari aurre egiteko balioak. Egunerokotasunean pairatzen ditugun mikromatxismoez jabetu behar gara eta garrantzirik ez kendu arazoaren larritasunari.



**Imanol
Santutxu**

Instituzioek ahalegin gehiago egin beharko lukete kaltetutako emakumeak laguntzeko. Erasoak salatzen eta erantzuteko beldurra kendu behar da.



**Gaizka
Barakaldo**

Ondo bideratutako hezkuntza guztiz oinarrizkoa da jarrera egokiak eragiteko. Askotan uste dugu ez garela matxistak, baina jokabide sexista asko daukagu, eta horretaz jabetu behar gara.



**Judith
Rekalde**

Inkontzienteki estereotipo sexistak sustatzen ditugu gure artean. Haurren hezkuntzan lan gehiago egin beharko litzateke.



**Ander
San Ignazio**

Eskoletan landu beharreko gaia da. Hitzaldi eta tailer gehiago behar ditugu berdintasuna sustatzeko.



**Ainara
Indautxu**

Nire ustez kulturak, ohiturek, erlijioak, genek... eragina daukate jokabide matxistetan. Horri aurre egitea oso zaila da.



harkua bete berba

>> FOLKLOREA



60 URTE HERRIA DANTZARAZTEN

Sei hamarkada bete ditu Deustuko Bihotz Alai taldeak. 60 urte euskal folklorea dantzan bedatzen. Horietatik asko eman ditu Edorta Yaldeberek taldean, eta bere bizipenak kontatu dizkigu.

Testua: Jone Gartzia - **Argazkiak:** Bihotz Alai

Urriaren 27an ospatu zuten Bihotz Alai taldeko kideek 60. urteurrena. Egun osoko egitaraua antolatu zuten, hamarkada hauetan taldetik igarotako dantzari eta txistulariak elkartzeko aitzakia-ekin. Argazki erakusketa, dantza ekitaldia, kalejira eta bazkaria izan ziren, besteak beste, Deustuko Done Petri plazan.

“Eguna itzelezkoa izan zen”, diosku Edorta Yaldeberek. 1970ean batu zen Bihotz Alai folklore taldera, eta geroztik honen parte izaten jarraitzen du. Urteotan memento onak eta txarrak izan dituzte. Hala ere, irakaspenik handiena “gauzak elkarrekin egiteak ematen duen indarra” dela azaldu digu.

Txikitasunean modu “egonkorrean” eta “eraginkorrean” ari dira, nahiz eta ez duten ezkututzen etorkizunak kezkatzen di-

tuenik. Izan ere, gero eta gutxiago dira proiektuan, eta ume falta nabaria daukate.

Egun zirrarratsua

Emozioei ezin eutsi ibili ziren urriko azken larunbatean. Izan ere, lehenengo belaunaldiko kide asko gerturatu ziren enparantzara, eta askok hamarkadak zeramatzen elkar ikusi barik. Malkoek, besarkadak eta barreek bete zuten Done Petri plaza, dantzari eta txistulariekin batera.

Azken hauek protagonismoa izan zuten egun berezian. Garai guztietako txistulariak elkartu eta kalejira egin zuten ospakizun handiari hasiera emateko. Izan ere, normalean txaloak dantzari-ri egiten dizkietela diosku Jabi Ortega dantzariak, “eta ez eurei”. Txistulari gabe ezer gutxi litzateke edozein euskal dantza talde, eta Bihotz Alaitik igarotakoei

gorazarre egiteko beta hartu zuten urteurrenean.

“Gaur egun txistulari gazteen eskasia nabaritzen dugu”, ohartarazi du Edorta Yaldeberek. Kontserbatorioa aspaldi ireki bazuten ere, kaleko musikari faltak harritzen du. “Agian, gure taldeak gehiago egin beharko luke arlo honetan”, aitortu digu.

Jai ereduaren inguruan

Yaldebereren aburuz, au-

zoetako jai eredu a purka aldatuz joan da, “gaueko ospakizunak indartzu eta egunekoak ahulduz”. Horren ondotik, dantza taldeak “bazerteruta” sentitzen direla diosku, ez egitarauan lekurik ez dutelako, baizik eta eguneko ospakizunetan gazteek duten parte hartze eskasa dela eta. “Nahiko nuke jaietako eguneko ospakizunak indarberitzea auzokide guztien partaide-tzarekin”, biribildu du Yaldeberek.





BABESTU PREST! ALDIZKARIA

*Aurrera jarraitzeko zure laguntza ezinbestekoa dugu.
Babestu PREST! aldizkaria urtean 25 euroko ekarpenarekin.*



Prest! aldizkariak 200 ale beteko ditu martxoan. Hau da, 18 urte hileroko gure inguru hurbilaren berri emanez, euskaraz.

Baina herri aldizkariaren egoera ekonomikoa ez da onena. Izan ere, azken urteotan izugarri murriztu zaizkigu diru-laguntzak eta publizitate-sarrerak. Inprimatze eta banaketa gastuak, aldiz, asko garestitu dira. Egoera honetan ezinezkoa zaigu proiektuari eustea.

Horregatik behar dugu zure laguntza, aldizkaria egonkortu eta burujabe bihurtzeko.

Prest! aldizkaria babestu nahi baduzu, era askotan egin dezakezu: helbideraketa bidez, transferentzia eginez edo eskura emanez. Horretarako, bidali zure datuak hurrengo helbideetako batera:

Bete beharreko datuak:	Nora bidali:
Izen-abizenak	prestharpide@gmail.com
Helbide elektronikoa	94.447.10.42
Telefonoa	Ramon y Cajal 42
Kontu zenbakia (IBAN)	48014 (Deustu)

NEUMÁTICOS MITXEL



JADA MARTXAN!!!

Blas de Otero 59, Deustu [Ikastetxearen aurrean]



Kontaktua:
94 407 26 69
neumaticosmitxel@gmail.com



KIROL TALDE BERRI BAT JAIO DA DEUSTUN

Munabi kirolkluba du izena Deustun sortutako talde berriak. Abiapuntuan atletismo taldea dena, etorkizunean igeriketa, txirrindularitza eta triatloi taldea bihurtuko da.



Testua: Aitor Sarrionandia-Ibarra Fernandez - **Argazkiak:** Muniabi Kirol Kluba

Ekimenaren bultzatzaile nagusia Jabi Muñoz da. Sortzez laudioarra, bertako atletismo taldean lan egin izan du urte luzez. Besteak beste, lehen antolatzen zen Lau-dioko nazioarteko kros ospetsuko antolakuntza lanetan ibili izan da.

Gaur egun Deustun bizi da eta kirolarekiko -batez ere atletismoarekiko- maitasunak bultzatuta, taldea sortzea erabaki du. Proiektua aurrera eramateko ilusio eta gogo berdina duten lagunak bildu ditu. Haien artean, taldearen lehendakariordea, Mikel Ostariz. Izenagatik ez bada, Deustuko Merkatuko tabernaria dela jakitearekin nahikoa duzu ezagutzeko, edo behintzat non topatu jakiteko. Bertan egin zuten joan den urriaren 26an taldearen aurkezpen publikoa.

Ekitaldi jendetsua suertatu zen eta gonbidatu anitz egon ziren. Udalaren aldetik Iñigo Pombo Gizarte Ekintza zinegotzia eta Itziar Urtasun Berdintasun, Lan-kidetza, Bizikidetza eta Jaietako saileko arduraduna batu ziren. Aurkezle lanak Begoña Beristai-

nek egin zituen, Onda Vascako kazetaria eta atleta. Besteak beste, Fabian Roncero atleta espainiarra aurkeztu behar izan zuen. Urte luzez Europako maratoi erdiaren errekorren jabea (59' 32") izandako atleta da. Batzuen iritiz oraindik errekorren jabea da, denbora hobe egin duena, Mo Farah britainiarra, sortzez Somaliakoa delako. Polemika albo batera utzita, atleta bikain horrekin beste kirolari on batzuk ere egon ziren: Merche Palacios espainiarra, Iraia Garcia eta Iban Fernandez. Azken hau ezin izan zen aurkezpena bertaratu, Valentziarako bidean baitzegoen hango maratoi erdian parte hartzeko, baina bideo bat bidali zuen.

Hainbat jarduera antolatzeko asmoa du talde berriak. Esaterako, Deustuko jaietan, martxoaren 23an zehazki, lasterketa herrikoia egin nahi dute. Lehiaketak atletismo federazioaren babesu edukiko du eta dagoeneko horren egutegi ofizialean agertzen da. Lasterketekin jarraituz, datorren denboraldian belar gaineko kros bat antolatzea aurreikusten dute, baina ez omen dute Deustuan horretarako leku aproposik topatu eta Kobeta mendira (musika festibal erraldoia ospatzen duten gunera) eramatea pentsatzen ari dira. Asmoen artean ere, atletismo eskola sortzea dago. Horretarako Udalarekin aztertzen ari dira Euskalduna zubipean dagoen hockey pista erabiltzea.





IRAULTZA GURE BAITAN HASTEN DA

Udazkenarekin batera ekin zioten Pareko emakumeek taldearen hamargarren urteurrena ospatzeari. Egun labur eta gau luzez beteriko azaroa ere ekintzaz gainezka egon da. Barrutik kanpora ibili dira, udazkenean zuhaitzek egin duten lez, barrena biluztuz



Testua: Uxue Gutierrez Lorenzo - **Argazkia:** Txakur Gorria

Berezia behar zuen urteak Pare Deustuko talde feministako emakumeentzat, eta hala iragarri zuten irailan. Izan ere, hamar urte ez dira egunero betetzen, eta ondo daki hori neska taldeak. Joan den hilabetean piztu zuten txinparta, eta orain arte luzatu duteugarra. Gainera, sua noiz itzaliko duten, ikusteke dago oraindik.

Azaroak badu berezko egun seinalatua feministontzat: azaroak 25, emakumeenganako indarkeriaren aurkako eguna. Egitaraua osatzean kontuan hartu zuen Parek eguna, eta baita hilari beste egun berezi batzuk gehitu ere. Gauzak horrela, bi ekintza esanguratsu antolatu dituzte hilabete honetan: autodefentsa ikastaroa eta sormen tailerra. Biek helburu

komunak dituzte; emakumeak saretu, ahaldundu eta indarrak batu. Izan ere, iraultza gure baitan hasten da.

Hilabete erdialdean pilatu dituzte bi jarduerak, inoiz gelditze ez den Deustuko egitarau zailean ekintzak tentuz kokatuz. Autodefentsa feministako ikastaroan hamabost emakume taldea bildu zen, lau orduko saioan, Deustuko Gazte Lokalean. Larunbat arratsalde lasaia igaro asmoz, erasoenguruan hausnartu eta horien aurrean erantzuteko tresnak jaso zituzten Piliren eskutik. Emozioz gainezka bukatu zuten neskek ikastaroa, barruak mugituta baina pozik eta indartuta. Saioa irekia izan zen, baina ekintza ez mistoa izatea erabaki zuen taldeak aurretiaz.

Erabaki berdina hartu zuten sormen tailerra egiteko, eta oraingoan Txakur Gorria taldeko ki-deak gonbidatu zituzten ekintza gidatzera. Euren baiezkoa jasota, hitzekin eta irudiekin jolasean eman zuten asteazken arratsalde dozenaka bat neskek. Arkatz, pintura eta orri artean murgilduta, askatu eta aske sentitzeko tar-te lasaia hartu zuten partaideek, egunerokotasunaren zurrunbilotik at.

Gauzak horrela, hilabete honetan ere zeresana eman dute Parekideek, bizirik eta indartsu daudela erakutsiz. Datozen hilabeteetarako ere sorpresak iragarri dituzte. Taldea barrutik eta kanpotik indarberrituta dagoenaren seinale, urtebetetzea luzatzen jarraitzeko asmoa dute Pareko neskek.

P6
PABELLÓN 6
www.pabellon6.org

CÓMO VENDER LA MUERTE

estreinaldia:
AZAROAK 23
www.pabellon6.org



PINTXODROMOA

>>SUKALDARITZA

TXIBIERROAK



Azaroan Benidorm kalera gerturatu gara. Han aurkitu ditugu Arbola Gaña eta Noiz...? tabernak. Carlos jabearekin bertako jaki eta edarien inguruan egin dugu berba.

Zailtasun maila: Ertaina

Egiteko denbora: 15 minutu

Prezioa: 5,50€ errazioa

Berezitasuna: orea betiko erara egiten dute

Kontu batzuk

Kale berean daude Carlosen Arbola Gaña eta Noiz...? tabernak. Arbola Gaña "sustraidun taberna" dela gogorazi digu jabeak. Izan ere, ohore egiten dio inguruan zegoen baserri eta txakolindegi famatuari, izen berekoa. Tabernotan egunero eskaintza zabala egoten da: gosariak, tortillak, pintxoak, ardo ona, garagardoa, bermuta... Batik bat ostegunetan izan ohi da giro ona, pintxo-potea dela eta. Gainera, igande eta jai egunetan txibierroak eskaintzen dituzte Arbola Gañan, eta aliolidun txokoak Noiz...? tabernan.

Noiz...? eta Arbola Gaña tabernak



Arbola Gaña taberna

Benidorm kalea 9 - 48015

Noiz...? taberna

Benidorm kalea 4 - 48015

944 02 66 96



Zelan egin?

Betiko eraran prestatzen dute orea. Txibiak zatitu eta irineztatu behar dira. Ostean, olio berotan frijitu. Nahi beste gatz eta limoi erantsi ahal zaie.

OSAGAIAK

*Txibiak
Irina
Olioa
Gatza
Limoia*



Presta itzazu Deustualdeko tabernetako pintxo goxoenak zure etxean!
Hementxe jasoko dituzu argibide guztiak. Eta hurrengo hilabeteetan...

Ramon y Cajal, 24
DEUSTUA

Tfnoa: 94 447 45 00




San Pedro plazako
frontoiaren atzean

Blas de Otero 30 - Deustu
946 181 118



LIBRE EPAIKETA POLITIKORIK EZ!



C/Alfonso de la Torre, 5. 48014 DEUSTO
TF: 94 405 06 58 BIZKAIA



Pedro Carballo Suárez

Plaza San Pedro, 2 • Teléfono: 94 476 43 96 • DEUSTO - BILBAO



Ramon y Cajal 23

**Deustuko
Ramon y Cajal kalean
girorik onena!**



kultur txotx

Literatura eta musika fresko-freskoa gure aholkularien kupelekoa



JANIRE SOLDEVILLA OBRADORS

Diseinatzailea

TXAKUR GORRIA DA!

“Sartu da”, “sartu dira”, “orrialdeak pasatu eta usaindu”, “hurrengoak hartu du”, “entzun dugu”, “kontatu dit”, “besarkadak”... Txakur Gorriak kolektiboak aurtengo Durangoko Azokarako irudian Landako gunearen inguruan sortutako mugimenduak, istorioak eta bizipenak islatu ditu. Azoka da, azoka asko dira.

Txakur Gorria 2016ko udaberrian eraturako autoekoizpen sormen-taldea da eta Mariñe Arbeo Astigarragak, Malen Amenabar Larrañagak, Ane Labaka Mayozenk eta Nerea Ibarzabal Saliegik osatzen dute. Alderdi grafikoa, hitza, objektua eta formatua uztartuz, lan kolektiboak egiten dituzte eta bertan azaltzen diren gaiak modu azidoan adierazten dituzte. Nahiz eta hasierako ideia elkarrekin garatzen duten, bakoitzak eremu batean jarduten du. Mariñe eta Malen diseinu grafikoak eta ilustrazioez arduratzen dira, eta Nerea eta Ane idazteaz. Hasieratik produktua osorik irudikatzen duten arren, hitza izaten da abiapuntua ilustrazioekin hasteko.

Prozesuak berak erabakitzen du emaitza zein motakoa izango den. Liburu-objektuari garrantzia ematen diote baina, ez dira formatu horretara mugatzen, ikus-entzunezko lanen bat ere garatu dutelako.

Sorkuntza ibilbidea *Txakur Gorria* izeneko ipuin laburrarekin hasi zuten Durangoko stand batean. Horren ostean etorri ziren *Atea irekiko ez lidaketen pertsonen etxean leihotik sartu nintzenekoa*, edota *Hizteria* hiztegia. Bertan, inguruko sortzaileen ideiak bildu zituzten talde-lanari pisu handia emanda, Txakur Gorriaren oinarriko ezaugarria, hain zuzen. Aurten ere Durangon topatuko ditugu?

Honaino azokaren istoriotxo bat, azoka asko baitira.



JON ELORTZA ZUFIAURRE

Elorri bertso-eskolako kidea

AHAL DENEAN KANTUZ GOZATU

Doinua: Izarren hautsa

Zeure pertsonaz irudi soil bat jendea joaten da sortzen estereotipo xume bat nola zaituzten maiz bilakatzen zeure izana guztiz sahiestuz ta kurbaturak zuzen tolestuz bilakaera aldatzen eta gainera sarri barrua nola zaila dan ulertzen arnasa hartu eta galdegin zer naiz ta atzo zer nintzen nahiz ta beteko zaituzten mezuz bihotza entzun, jokatu zentzuz barne nahia egikaritzen eta bizitza sentitzen

Aurten hasita nirekin dakart urduritasun lotura zueri esker nire nahiean aurrera noa gustura maisuak dio hasi, kantatu ta erritmoa trankil bajatu eman ez dadin haustura azaldu nintzen unean bertan sartu nendila barrua hasieratik erakutsiaz kantatzearen kultura soilik nahi nuen hontara batu ta ahal denean kantuz gozatu maite izan dugun hura zabaldu dadin mundura

DEUSTUALDEA

Bizi Prest

EGUNA

Bilboko Ahobizi eta Belarripresten eguna



Bilbon
euskaraz



Bilbao



BABESTU **Prest!** ALDIZKARIA

URTEAN **25** EUROKO EKARPENAREKIN

prestharpide@gmail.com - 944.47.10.42
Ramon y Cajal 42 - Behea